**BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, EIBARKO UDALAREN KULTUR PROGRAMAZIOAREN PUBLIZITATE-KUÑAK EMATEKO IRRATIAN.**

**PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DE LA EMISIÓN EN RADIO DE CUÑAS PARA PUBLICITAR LA PROGRAMACIÓN CULTURAL DEL AYUNTAMIENTO DE EIBAR.**

**I.- KONTRATUAREN XEDEA:**

Eibarko Udalak antolatzen duen kulturari eta jaiei buruzko programazioa hedatzeko publizitate-kuñak kontratatzea, Eibarko eta eskualdeko herritarrei jarduera horien berri emateko.

**I.- OBJETO DEL CONTRATO:**

Contratación de cuñas publicitarias para difundir la programación cultural y festiva que organiza el Ayuntamiento de Eibar, con la finalidad de dar a conocer a la población de Eibar y comarca dichas actividades.

**II.- IRRATIKO KUÑAK EMATEA.**

Irrati-kuñak sartuko dira, Eibarko udalak antolatzen duen kultur programazioaren premiak kontuan hartuta.

Horretarako, Eibarko Udaleko kultur jardueren exekuzioa baino hilabete lehenago, bilera bat egingo da irrati adjudikaziodunaren arduradunaren eta Eibarko Udaleko arduradunaren artean.

Bileraren xedea izango da kuñen programazioa lantzea, Eibarko Udalak antolatutako jarduerak kontuan hartuta.

**II.- EMISIÓN DE LAS CUÑAS DE RADIO.**

Las cuñas de radio se emitirán sobre la base de las necesidades de la programación cultural que organiza el Ayuntamiento de Eibar.

Para ello, el mes anterior a la ejecución de las actividades culturales del Ayuntamiento de Eibar, se mantendrá una reunión entre la persona responsable de la radio adjudicataria y persona responsable del Ayuntamiento de Eibar.

El objeto de dicha reunión será el de elaborar la programación de la emisión de las cuñas según las actividades organizadas por el Ayuntamiento de Eibar.

**III. KUÑEN EZAUGARRIAK.**

Kuña estandarrek 20 segundoko iraupena izango dute eta irratiko programazioaren ordutegi ezberdinetan sartuko dira.
Mikro-espazio kulturalek hiru minutuko iraupena izango dute.

Kuña horietan islatu egin beharko da Eibarko Udalak iragarritako jardueran garatzen duen antolaketa, babesletza, lankidetza edo beste.

Kuñaren iraupena handiagoa edo txikiagoa bada, haren prezioa kuña estandarraren kostuaren arabera kalkulatuko da.

**III.- CARACTERISTICAS DE LAS CUÑAS.**

Las cuñas tipo tendrán una duración de 20 segundos y se insertarán en distintos horarios de la programación de la radio.
Los micros espacios culturales tendrán una duración de tres minutos.

En dichas cuñas se deberá reflejar la organización, patrocinio, colaboración u otro que desarrolle el Ayuntamiento de Eibar en la actividad anunciada.

Caso de ser mayor o menor la duración de la cuña, el precio de la misma se calculará en proporción al costo de la cuña tipo.

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Firmado con sello electrónico de Organismo




| Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **58b374e264fc2d7703e224eac547afa76628388b**<br>Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202200002526**<br>**https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do** | |
|---|---|
| Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por: | Data / A día: |
| **JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO** | **10/11/2022 08:09:37** |

**IV.- KUÑAK IRRATIZ EMATEKO UDALAK ENPRESA ADJUDIKAZIODUNARI ENTREGATUKO DION MATERIALA.**

- Eibarko Udalaren kultur gida (e-kultura), hileko kultur programazioarekin.
- Irratian publizitatea izan beharko duten kultur jardueren zerrenda.
- Enpresa adjudikaziodunak, material horrekin, eta Udalaren instrukzioei jarraituz, kuñak egingo ditu. Ahal denean, jardueraren soinu-dokumentuak sartuko ditu. Adibide gisa, kontzertuen publizitatean, emanaldian interpretatuko diren piezetako baten iragarki-tarte bat.

**IV.- MATERIAL QUE EL AYUNTAMIENTO ENTREGARA A LA EMPRESA ADJUDICATARIA PARA LA REALIZACIÓN Y EMISIÓN DE LAS CUÑAS.**

- La guía cultural del Ayuntamiento de Eibar, e-kultura, con la programación cultural del mes.
- La relación de actividades culturales que deberán contar con publicidad en radio.
- La empresa adjudicataria, con dicho material, y siguiendo las instrucciones del Ayuntamiento, elaborará las cuñas. Cuando sea posible incluirán en las mismas documentos sonoros de la actividad. Como ejemplo, en la emisión de publicidad de conciertos, un corte de alguna de las piezas que se interpretarán en la actividad.

**V.- BEHARREZKO BALDINTZAK**

Eskaintza egiten duen irratiak honako hauek izan beharko ditu:

- Gutxienez astean 10 orduko toki-programazioa izatea.
- Azken hiru urteotan 3.000 entzuletik gora izatea batez beste.
- Eibarrerako eta eskualderako estaldura izatea.

**V.- REQUISITOS NECESARIOS**

La radio oferente deberá:

- Contar con una programación local mínima de 10 horas semanales.
- Una audiencia media que supera los 3000 oyentes durante los últimos tres años.
- Cobertura para toda la zona de Eibar y comarca.

KULTURA ZUZENDARIAK

EL DIRECTOR DEL AREA DE CULTURA

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Firmado con sello electrónico de Organismo



Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **58b374e264fc2d7703e224eac547afa76628388b**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202200002526**
**https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

| Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por: | Data / A día: |
|---|---|
| **JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO** | **10/11/2022 08:09:37** |